

Xabier Etxeberria

# Ignacio Ellacuría: testigantza eta mezua

*Xabier Etxeberria etikako irakaslea da Deustuko Unibertsitatean (Bilbon). Bakeaz erakundeko Bakerako Hezkuntzaren arloko arduraduna da, Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutuko kidea eta Justizia eta Bakea elkarteko kolaboratzailea garapenerako lankidetzaren arloan. Artikulu, koaderno eta liburu asko argitaratu ditu bere ikerketa filosofikoaren oinarritzat hartzen dituen esparruei buruz, hau da, hermeneutika, etika eta giza eskubideei buruz. Batzuk baino ez ditugu aipatuko: *Imaginario y derechos humanos desde Paul Ricoeur* (IDTP-DDB), *La ética ante la crisis ecológica* (Bakeaz, UD), *Ética básica* (UD), *Ética de la desobediencia civil* (Bakeaz), *Ética de la diferencia* (UD), *Perspectivas de la tolerancia* (UD), *La educación ante la violencia en el País Vasco* (Bakeaz), *La noviolencia en el ámbito educativo* (Bakeaz), *“Lo humano irreductible” de los derechos humanos* (Bakeaz), eta *“Identidad nacional y violencia. El caso vasco” in Razones contra la violencia. Por la convivencia democrática en el País Vasco, I. lib.* (Bakeaz).*

Ignacio Ellacuriaren irudira hurbil gaitzeko haren bizimodua edo haren mezua oinarri hartuta. Hurrengo lerroetan, biografiako datu orokorrak eman ondoren, txirotuekin hartutako konpromiso adimentsu eta praktikoa aitzakia hartuta hura hiltzeak duen esanahia nabarmenduko dugu. Bestalde, Ellacuriaren gogoetan eragin unibertsala duten alderdiak azpimarratu ditugu: txirotasun ankerraren benetako errealitatean sartzeko beharra, xede izan behar dugun “txirotasunaren zibilizazioaren” ikusmuga eta bakearen aldeko lana nola bideratu.

## AURKIBIDEA

1. Biografia laburra	1
2. Lekuko izaerako bizimodua	2
■ Boteretsuen indarkeriaren biktima	
■ Jarduera intelektual justiziarekiko konpromiso gisa	
■ Euskaldun unibertsala	
3. Ignacio Ellacuriaren irakaspenak	3
■ Benetako errealitatea	
■ Benetako errealitatean sartzea	
■ Txirotasunaren zibilizazioa	
■ Indarkeriarik gabeko lana bakearen alde eta indarkeria askatzailea	
Oharrak	5
Oinarritzko bibliografia	5

## 1 Biografia laburra

Ignacio Ellacuría<sup>1</sup> komunikabide guztietan agertu zen 1989ko azaroaren 16an, modu basatian erail baitzuten bost kideekin eta guztiak artatzen zituzten bi emakumeekin batera. Haren historia hurbilekoa zitzagun. Portugaleten jaio zen 1930eko azaroaren 9an, Jesusen Konpainian nobizio sartu zen 1947an eta, bi urte geroago, 19 urte zituela, El Salvadorrera bidali zuten. Bizimodu osoa herrialde horren inguruan bilbatu zuen. Herrialdea ikasketa kontuengatik (Quiton, Innsbrucken eta Madrilen) eta behartutako erbestealdietan bakarrik utzi zuen. Herrialdean sustraituta, bertako kultura eta naziotasuna bere eginda, Erdialdeko Amerikako *gurutzefikatuen* kausarekin identifikatu zen, eta, horiengan oinarrituta, “Hirugarren mundu” edo “Hegoalde” izeneko gehiengoaren kausarekin. Horretarako hautatutako bidea intelektual konprometituarena izan zen, batez ere, unibertsitateko lanaren bitartez.

70eko hamarkadan, osatutako filosofo eta teologotzat hartu zuten. Sustraiak Zubiri eta Rahner-engan zituen, baita marxismo kritikoan ere. Etengabe eragin zuen politika eta gizarte bizitzan, jarrera konprometitu eta arriskutsuekin, laguntzak emanez eta salaketak eginez. 80ko hamarkadan, herrialdeko gizartean eragin handia zuen José Simeón Cañas

Erdialdeko Amerikako Unibertsitateko (UCA) errektore izan zen; eta El Salvador-eko bakerako prozesu politiko delikatu bitartekari eta negoziatzaile agertu zitzaigun.

Bizitza politikoan modu horretan parte hartzea, herrialdeko inguruabar nahasietan independentziaz parte hartzea (bai Estatuaren aurrean, bai FMLN<sup>2</sup> gerrillaren aurrean), justizia zerbitzatzea gurari bakarria izanda, oso arriskutsua da. Gure autoreak erbestean egon behar izan zuten (Nikaraguan, Espainian), baina etengabe sentitzen zuten bere lekua El Salvador-en zegoela, eta beti itzuli zen bertara. Hil baino bost egun lehenago Bilbon zegoen, Bartzelonara bidean, sari bat jaso behar izan zuen eta. Lagunek behin eta berriro esaten zioten hara ez itzultzeko, arriskutsua zela. Baina bera, arriskuan zegoela jakin arren, itzuli egin zen. Hiru egun geroago, Atlacatl batailoia balaz josi zuen.

## 2 Lekuko izaerako bizimodua

Aipatu berri dugun biografia laburrean, hiru alderdi nabarmendu behar dira.

### ■ Boteretsuen indarkeriaren biktima

Lehenengoak heriotzara garamatza. Ellacuría erail egin zuten. Biolentzia errepresio-gilearen biktima da. Hil egin zuten boteretsuen eta errepresio-gileen interesentzat oztopoa zelako. Baina bizitza askatasunez eman zuela ere esan daiteke, txiroak maite zituen eta. Oligarkak, militarrek eta agintariak atzetik zituela jakin arren (15 aldiz egin zuten eztanda bonbek UCA-n eta lau aldiz bere etxean; horrez gain, heriotza mehatxuak jaso zituen etengabe), txiroen alde, txiroekin eta justiziaren alde lan egiten zuten guztiekin batera bizitza emateko prest zegoen. Esangura horretan, heriotzak lekuko izaera eman zion Ellacuriaren bizitzari.

Zergatik hil zuten? Arrazoi faltsuengatik: komunista, aberriaren aurkako, terrorismoa bultzatzen zuten endredatzaile eta ateo izatea egotzi zioten. Haren irudia desitxuratu zuten. Baina, batez ere, benetako *arrazoiengatik* hil zuten: *askatzailea* zela leporatu zioten, eta, hain zuzen ere, Ellacuría gizarte desberdina ekarriko zuen askapenaren alde zegoen, hau da, berak salatzen zuen gizarte ez-bidezko eta errepresio-gilearen aurrean askatzearen alde, eta hori ez zuten haren etsaiek onartu. Esangura horretan, haren heriotzak erakusten du kausa horren alde lan egin zuela, eta bizimodu hori imitazio eredu gisa proposatzen zaigu. Lekukoa, sinboloa, denez gero, ikastetxeek, osasun zentroek, elkarteek... haren izena hartu dute. Garrantzitsuena da hori guztia testigantza bizia izatea, eta hori gure esku dago.

### ■ Jarduera intelektualaren justiziarekiko konpromiso gisa

Ellacuriaren bizitzaren inguruan egin daitekeen bigarren oharra justiziarekiko konpromisoa adierazteko erabilitako bidea da: jarduera intelektualaren. Jon Sobrinok, kanpoan izateagatik heriotzatik libratu zen lagunak, hurrengo diosku: "Ellacuriak miseriak gauzatu zuten, batez ere, adimenaren erabilaren bidez". Apur bat gehiago zehaztuz: "Ellacuría intelektualaren bidez, ezagutzak gehitzearen ginetik lehentasun logikoa zuen kausari emandako *persona azalera* zen". Modu horretan, bera bezalako pertsonak erreferentzia bihurtzen dira, jakintzari eman beharreko esangura ikus-teko, pentsalarientzat, akademikoentzat, zientzialarientzat, ekonomistentzat, abokatuentzat, historialarientzat..., hots, jarduera horietarako prestatzen ari diren ikasleentzat. Ellacu-



TEL CORREO

Ignacio Ellacuría, *El Correo* egunkariaren egoitzako atean.

riak erabili ohi zuten hizkera hartuta, esan daiteke xedea "askapenerako" intelektualak izatea dela.

Adimena justiziaren zerbitzura ipintzeak esan nahi du toki egokietatik lan egiten ipintzea. Ellacuriaren esanetan, gogoetarako eta praxirako "tokirik" bikainena "zorigaiztokoak eta behartsuak" dira. Hain justu ere, toki horretan ez dago filosofo, teologo eta zientzialari askorik. Toki horretatik kanpo, adimentsuak izan arren, bitarteko asko izan arren, inoiz ez dugu

*Batez ere, benetako 'arrazoiengatik' hil zuten: 'askatzailea' zela leporatu zioten, eta, hain zuzen ere, Ellacuría gizarte desberdina ekarriko zuen askapenaren alde zegoen, hau da, berak salatzen zuen gizarte ez-bidezko eta errepresio-gilearen aurrean askatzearen alde, eta hori ez zuten haren etsaiek onartu*

jakintza egokia eskuratuko, justizia jakintza. Horixe da *benetako* tokia, leku fisiko zehatza askotarikoa izan daiteke eta: unibertsitatea, oinarri kristauko erkidegoa, bulegoa. Horiek guztiak erabilgarriak izan daitezke, alde on eta makurrekin. Gainera, elkar osa dezakete. Baina denak dira baliagarriak txirotasunaren errealitatean murgilduta badaude (horretarako, beharrezkoa da hartu-emanak izatea txirotasunaren errealitate fisikoarekin). Ellacuriak berak zioen: "teologia edo filosofia *idazmahai*an egin daiteke, baina ez *idazmahaitik*".

### ■ Euskaldun unibertsala

Hirugarren oharra etxekoa da, partikularra eta tokian tokikoa, baina guretzat garrantzitsua izan daiteke. Ellacuriaren-

gan, bere bizitzan, euskaldun unibertsala izatea zer den ikus dezakegu. El Salvadorren eta Erdialdeko Amerikako kulturari guztiz sustraitu zen, baina, aldi berean, bere lagunaren testigantza arabera, inoiz ez zituen jatorrizko sustraiak galdu. Rafael Aguirreraren hitzetan: *“Bere izaera eta bere borondatea, kristauen eta jesuiten heziketa hemengoak ziren. Baina euskaldun unibertsala izan zen eta arrazoiaren eta bihotzaren begiak zabalik izan zituen errealitate amerikarra aurkitzeko, batez ere, errealiterik egiazkoena aurkitzeko, hots, gehien-gehen txirotasun bidegabearen errealitatea [...] Sustraiari uko egin ez zien euskalduna. Jaioterriko arazoez arduratuta zegoen eta Athletic-en jarraitzaile zintzoa zen astero-astero. Nolanahi ere, bihotz handiko eta begirada zabaleko euskalduna zen eta, horrenbestez, El Salvadorreko errealitatean sartu eta lurralde hartako txirotasunaren etorkizuna, borroka eta itxaropena bere egin zituen, maitasun heroikoa —neurritsua, baina benetakoa— erakutsita”*. Egun, horrelako erreferentziak behar ditugu: sustraitzea besteengana erabat irekitzeko baldintza da eta irekitze horren unibertsaltasuna ez du kosmopolitismo postmodernoak ematen, behartsuenen aldeko elkartasunezko konpromisoak baino. Horren azpian dagoen ustea da gizateria osoarekin benetan bat egiten dugula soil-soilik behartsuenekin justiziaren aldeko lanean bat egiten dugunean.

### 3 Ignacio Ellacúriaren irakaspenak

Zer hartuko dugu modu erraz eta oinarrikoan European bizi garenok justiziaren alde lan egiten zuen intelektualarengandik? Ellacuría izan zen, sinbiosi harmoniatsuan, filosofoa eta teologoa, hiritar konprometitua eta kristau (jesuita) konbentzitu. Edonola ere, haren proposamenetan argi ikus daiteke zer dagoen zuzenduta gizaki guztiei, ateoak, agnostikoak zein fededunak izan, eta zer dagoen zuzenduta fede kristaua zer bizitzat edo, behintzat, deitatzat hartzen duten horiei. Lerro hauen xedea kontuan hartuta, irakurle guztiei zuzenduta baitaude, autorearen mezuko puntu nagusi batzuk baino ez ditut nabarmenduko, berez, funts laikoa dutelako eta, beraz, guztiok onar ditzakegulako.

Ellacúriaren mezuan, gutxienez, lau gai nagusi hauek azpimarratu behar dira: benetako errealitatearen definizioa, errealitate horretan sartzeko gonbita, txirotasunaren zibilizazioaren ikusmuga, eta bortizkeriarik gabeko lanaren eta bortizkeria askatzailearen gaia.

#### ■ Benetako errealitatea

Ellacúriaren esanetan, gure bizitzak eta gure ekintzek esangura eta norabide egokia izango dute, *benetako errealitate* zuzenduz gero. Errealitate hori ez da gure inguruan batabatean ikusten duguna, ez da komunikabideetan normalean agertzen dena. Benetako errealitatea, gure arreta piztu behar duena, txirotasun ankerra da, gehiengoak modu gupidagabe eta bidegabean hiltzea. Ellacúriak, konnotazio erlijiosoak dituen hizkuntza adierazkorra erabiliz, hurrengo esango du: benetako errealitatea *herritar gurutzefikatuak* dira, beste gizaki batzuen eta gaiztakeriaz jarduten duten egituren eraginez heriotza bidegabea izaten dutenak.

Errealitate horri muzin egiten badiogu, fikzioaren eremuan egongo gara, gezurraren eremuan. Aitzitik, errealitate horretara hurbiltzen gara hunkitzen gaituenean, hau da, umilduen eta bortxatuen multzoengana hurreratzean barruak asaldatzen zaizkigunean. Horren aurrean, errealitate hori aldatzeko eta injustiziaren aurka borrokatzeko konpromiso sendoa hartzen dugu, *“herritar gurutzefikatuak gurutzetik jaisteko”*. Errealitate horretara ez da behatzeko bakarrik hurbildu behar, ezta errukia erakutsiz ere. Izan ere,

errealitate modu horrek, elkartasuna lagun dugula, barrurantz bultzatzen gaitu, errealitatea errotik aldatzeko, hau da, egiturazko aldaketa lortzeko. Azken buruan, errealitate hori zer den eta zer izan behar den biktimen sufrimenduak baldintzatzen du, eta, hain zuzen ere, horixe da gure bereizketen eta gure ekintzen irizpide erabakigarria.

*Norberaren ibilbidean, sustraitzea besteengana erabat irekitzeko baldintza da eta irekitze horren unibertsaltasuna ez du kosmopolitismo postmodernoak ematen, behartsuenen aldeko elkartasunezko konpromisoak baino*

#### ■ Benetako errealitatean sartzea

Modu horretan, benetako errealitateak *“bertan sartzeko”* eskatzen digu. Ellacúriak horren esanahia testu entzutetsu batean azaldu zuen. Nahiz eta testua apur bat zaila izan, merezi du hemen jasotzea, konpromiso intelektualari zuzentzen baitaio zuzenean: *“Benetako gauzei benetakoak direlako aurre egiteak hiruko dimentsioa du: errealitatearen ardura hartzea, hau da, gauzen errealitatean egotea —eta ez bakarrik gauzen ideien edo gauzen esanguren aurrean egotea—, gauzen errealitatean ‘benetan’ egotea; egotearen izaera aktibo hori egote geldoaren guztiz kontrakoa da, gauzen aurrean artekaritza material eta aktiboen barrena egotea da; errealitatea nork bere gain hartzea, adimenaren funtsezko izaera etikoa adierazten duen esapidea da; adimena ez zaio gizakiari eman benetako konpromisoei muzin egiteko, baizik eta bere gain har dezan gauzak benetan nolakoak diren eta benetan zer eskatzen duten; errealitatearen kargu egitea, adimenaren praxi izaera adierazten duen esapidea da; adimen horrek egin behar duena egiten du —baita errealitatea ezagutu eta horren esangura ulertu ere— soil-soilik benetako zerbait egiteko ardura hartzen duenean”*. Benetako errealitatearen ardura hartzea, nork bere gain hartzea, horren kargu egitea: Ellacúriarentzat funtsezko bizi jarrera zer den azaltzen duen sintesi adierazkorra.

Hain justu ere, benetako errealitatean sartzea garrantzitsua denez gero, salaketa-jarrerarik oinarrikoenak errealitate estaltzearen aurka izan behar dira. Errealitatea estaltzea da, batetik, aberastasunaren munduan kokatutakoek euren burua engainatzearen ondorio eta, bestetik, mundu honetako botere interesatuen fruitu. Batez ere Lehen Munduari zuzen-



Ignacio Ellacuría Bigarren Hezkuntzako Institutua, Bilbon.

dutako salaketa da, nahikoa egiten duela uste baitu Hegoalderan unean uneko hurbilketa azalekoak eta *limosnariak* eginda. Lehen Munduan bizi garen ginoan, Ellacuriak bultzatzen gaitu Hirugarren Munduaren errealitatea behatzera. Autorearen ustez, Hirugarren Mundura *benetan* begiratzuz gero, ispilu alderantzikatuan bezala, gure errealitate desitxuratu baina

*Benetako errealitatean sartzea  
garrantzitsua denez gero,  
salaketa-jarrerarik oinarrizkoenak  
errealitatea estaltzearen aurka izan behar  
dira. Errealitatea estaltzea da, batetik,  
aberastasunaren munduan kokatutakoek  
euren burua engainatzearen ondorio eta,  
bestetik, mundu honetako botere  
interesatuen fruitu*

benetakoa ikusiko dugu, guk ekoizitakoan oinarritua: herri-tar gurutzefikatuak. “Horrela, Hirugarren Munduaren kanpokotasunak Lehen Munduaren barnetasuna azalatu eta salatzen du; horri ez zaio begiratu nahi, izateko eta egiteko modu guztiak zoratu edo aldatuko lituzke eta”. Edo metafora baten bidez esanda, hobeto ulertzeko: gaixoaren osasun-egoera nolakoa den jakiteko, batzuetan, gorotzak aztertu behar dira; bada, gizateriaren gorotzak aztertuta, Hirugarren Munduaren zorigaitza agertzen zaigu, eta, horrela, zorigaitz hori sortzen duen Lehen Munduaren *osasuna* neurtzen da.

## ■ Txirotasunaren zibilizazioa

Bigarren salaketa, txirotasun ankerraren errealitatea estaltzearen aurka baino, munduko gaitzak amaitzeko proposatutako konponbide faltsuaren aurka egiten da. Ellacuriaren esanetan, konponbide hori da, *guztiei* gizarte demokratiko neoliberalerako *kapitalaren zibilizazioaren* ideala eskaintzea, gaur egun, modu menderatzailean, herrientzat bide bakar gisa agertzen zaiguna. Ellacuria aurreratu egiten zaigu, pisuzko arrazoi bat ematen baitu benetako konponbidea hori ez dela frogatzeko: ez da orokortzeko modukoa. Planetak ez du baliabide nahiko herrialde aberatsen egungo ongizate moduak orokortzeko. Beraz, orokortze hori ikusmuga gisa proposatzea tranpa eta ez-moraltasuna da. Egiatan, zibilizazio horretaz gizateriaren zein atalek gozatuko duen eta aurreko horien gorotzak gizateriaren zein atal izango diren erabakitze eskatzen digu, eta erabaki hori guztiz bidegabea da.

Baina, Ellacuriaren iritziz, konponbide bideraezina izateaz gain, posible izango balitz ere, konponbide makurra da. Eta, hain zuzen ere, puntu honetan proposatuko du berak *txirotasunaren zibilizazioa* deritzon alternatiba utopikoa. Zibilizazio hori ez da baliabideen eta populazioaren arteko korrelazioaren ondorioz orokortu daitekeen bakarra izateak eragindako beharrezana. Osotasun ikusmuga ere bada. Izan ere, Ellacuriaren berbetan, zibilizazio horrek “*uzten dio benetan lekua espirituari; espiritu hori ez du itoko beste batek baino gehiago edukitzeo irrikak, gauza hutsalak izateko irrika gutziatsuak, gehiengoari beharrezkoa falta zaionean. Orduan erneko da Hirugarren Munduko txiroen eta herrien espiritua, alderdi espiritualean eta gizatarrean duten aberastasun mugagabea, gaur egun itota baitaude ezarri dizkieten eredu kulturalen eraginez, nola edo hala garatuagoak izan arren, agian, ez baitira bete-betean gizatarrak*”.

“Txirotasunaren” zibilizazioaz hitz egitea, nola ez, probokatzailea da. Bistan denez, Ellacuriak ez du nahi txirotze unibertsala bizi ideal gisa. Are gehiago, horren aurka borrokatu zen hil arte. Bere nahia da modu sutsuan oposatzea ideal bat

eta aberastasunaren ideala. Hori dela eta, txirotasunaren zibilizazioak “*baztertzen ditu, batetik, kapitala pilatzea historia-ren motor gisa eta, bestetik, aberastasuna edukitzea-gozatzea gizatatze printzipio gisa; horren ordez, oinarrizko beharrezan-ak modu unibertsalean asebetetzea garapenaren printzipio legez finkatzen du, eta elkartasun partekatua gehitzea, gizartzearen oinarri legez*”. Hemen, txirotasuna inola ere ez da zapaltze mekanismoen eraginez funtsezkoa ez izatea, guztiz alderantzizkoa baino, hau da, norberaren eta taldearen sormena ahalbideratzen dituen egoera. Jon Sobrinok proposamen probokatzaile hori formula honen bidez emango du: “*soiltasun partekatua zibilizazioa*”. Ellacuriarentzat utopia zen —hitzaren esangura positiboan—, gure pausoak orientatzen dituen ikusmuga, baina ekimen askotan erretzen ari zela ikusi zuen, eta, ekimenok txikiak izan arren, oro har, etorkizun oparokoak zirela ohartu zen.

## ■ Indarkeriarik gabeko lana bakearen alde eta indarkeria askatzailea

Utopiarantz joan nahi izatea errealitateak ematen dizkigun aukeretara modu egokian moldatzea da. Kasuan-kasuan zer egitea komeni zaigun erabaki behar dugu, baina horrek ez du esan nahi uneko egoeraren aurrean, “*gauzak horrela dira*” esapiderearen aurrean, etsi behar dugunik, bideragarriak ez diren ekimenetan murgildu behar garenik. Indarkeriak badu hemen lekurik aldatzeko bide legez? Ellacuriak, El Salvadorren bizi zuen indarkeria egoera izugarriatik (erakundeen aldetik, errepresioa eta gerra), interes handia zuen gai horretan. Europara zetorrenean, euskal sustraiak zituenez, han bizitakoa hemengo indarkeria egoerarekin alderatzen zuen. Haren pentsamolde ñabartua artikulu batean bilduta dago eta nik horretara igortzen zaituztet.<sup>3</sup> Partziala izateko



Gerrillaren erasoan eraildako aita jesuitak. José Simeón Cañas Erdialdeko Amerikako Unibertsitatea (ECA), San Salvador, 1989ko azaroa.

arriskua onartuta, edonola ere, gure autorearen ideia nagusiak adierazten ahaleginduko naiz.

Ellacuriaren ustez, indarkeriaren arazoa modu desberdinean jaso behar da egoera bakoitzean. Batzuetan, egiturazko indarkeria eztabaidaezin eta guztiz ankerrari egin behar diogu aurre. Indarkeria horrek injustizia erakundetzen du eta, horren eraginez, gizaki gehienak bizitzeko beharrezko baliabiderik gabe geratzen dira; horrez gain, egoera horietan, ordena bidegabe horri aurre egin nahi diotenen aurka indarkeria zapaltzailea egon ohi da (Estatuko terrorismoa), Estatu-segurtasunaren izenean justifikatuta. Inguru horretan, kontraindarkeria iraultzaile-askatzailea justifikatuta egon daiteke “gaitz askoz handiagoen aurreko erantzun saihestezina bada argi eta garbi, hau da, modu eraginkor bakarra bada behin betiko desagerrarazteko eskubide politikoak deuseztatzea baino bizitza bera ukatzea zapalketaren eta errepresioaren bidez”. Zernahi gisaz, orduan ere onartu behar da kontraindarkeria hori gaitza dela, gainditu nahi duen gaitza baino txikiagoa izan arren. Hori dela eta, ahalik gehiena giza-tartu beharko da terrorismoaren itxura har ez dezan. Horregatik, ahaleginak egin beharko ditugu armarik gabeko borroka soziopolitikorako modu eraginkorrak bilatzeko herri erakundeetan, erresistentzia aktiboaren eta gizarte presio eraginkorraren bidez.

Aurrekoa kontuan hartuta, ikus daiteke Ellacuría ez dela muturreko bakezalea. “Bihotzeko minaz” eta arretaz, egoera muturreko eta oso zehatzetan, indarkeria modu batzuk onartzen ditu erantzun gisa, baina, kasu horietan ere, indarkeriarik gabeko borroka moduen alde egiten du. Baina Lehen Munduko egoeren aurrean, irmotasunez adierazten du borroka armatua erabat zentzugabea dela: “gaur egun, Lehen Munduan ez daude inbasio militarrik ez tirania politikoak, polizi errepresioa edo bestelako zapalketak egon daitezkeen arren. Hori ez da nahikoa indarkeriazko erantzuna erabiltzeko, batez ere, armarik gabeko borroka eta terrorismoa ez diren beste erantzun batzuk onartzen dituen ordena demokratikoan”. Ellacuriak, aipatu artikuluan, euskal arazoari eta horrek indarkeriarekin duen loturari buruz hitz egiten du. Hiru ohar iradokitzaile egiten ditu eta, hemen azalduko ez ditudan arren, ondorio bera ateratzen duela esango dut, hots, erantzun-indarkeriaren legitimotasunik eza. Honek amaitzen du: “beste bide eraginkorrik aurkitzeko gaitasunik ez dugulako indarkeriara jotzea nork bere mugak onartzea eta gizatasuna kentzeko bide ziurra da”.

Ellacuriak egindako proposamenetik askoz gauza gehiago atera daitezke. Dena den, nire ustez, hemen azaldukoak nahiko dira autorearen ideia nagusiak ikusteko eta material egokia —modu sortzailean hartuta— esku artean izateko, geure buruen xaxagarri.

ikus ditzake: A. GONZÁLEZ, *Aproximación a la obra filosófica de Ignacio Ellacuría*. ECA 505-506, 1990; Juan Antonio SENENT DE FRUTOS, *Ellacuría y los derechos humanos*. Bilbo: Desclée de Brouwer, 1998.

2. Ellacuriarentzat, hauek dira El Salvadorren idolotzat hartu arren salatu beharko lirakeenak: beste guztiak eragiten dituen, larriena, hots, kapitala absolutu bihurtzea; bigarrena, nazio segurtasunaren ideologia, eta horren zerbitzura ipinitako indar armatua eta eskuadroiak; hirugarrena, herritarren erakunde armatua, azkenean biolentziaren mistika bihurtuko dena, absolutu bihurtzea.
3. “Trabajo no violento por la paz y violencia liberadora”, *Concilium*, 215, 1988.

## OINARRIZKO BIBLIOGRAFIA

- ELLACURÍA, Ignacio: *Principialidad de la esencia en Xavier Zubiri*, Madril, Universidad Complutense, 1965.
- *Conversión de la Iglesia al Reino de Dios. Para anunciarlo y realizarlo en la historia*, Santander, Sal Terrae, 1984.
- *Filosofía de la realidad histórica*, Madril, Trotta, 1991.
- *Veinte años de historia en el Salvador. Escritos políticos* (3 lib.), San Salvador, UCA, 1991.
- *Escritos filosóficos I*, San Salvador, UCA, 1996.

## OHARRAK

1. Autorearen aurkezpena egiteko, hurrengo material bibliografikoak erabili dira: R. AGUIRRE, J. SOBRINO eta R. CARDENAL, *Ignacio Ellacuría: el hombre, el pensador, el cristiano*. Bilbo: EGA argit., 1994. Liburu horretan agertzen dira Rafael Aguirreren aurkezpena, Jon Sobrinoren ikerketa orokorra —bereziki hartu dut kontuan— eta Rodolfo Cardenalen ikerketa laburragoa, kultura kontzeptua eta Ignacio Ellacuriaren testuen antologia oinarri hartuta, autorearen ekoizpen intelektualaren sintesi baliotsua egiten duena. R. MARTIALDY, *Sangre en la Universidad. Los jesuitas asesinados en El Salvador*. Bilbo: Mensajero, 1999. Zorroztasun akademiztari ihes egin nahi izan diodanez gero, aipamenak modu informalean aurkeztu ditut. Edonola ere, guzti-guztiak material bibliografiko hauetan agertzen dira. Aipatutakoez gain, hurrengo hauek ere kontsulta daitezke: J.J. TAMAYO, *Ignacio Ellacuría, teólogo mártir por la liberación del pueblo*. Madril: Nueva Utopía, 1990. Eta Ignacio Ellacuriaren pentsamoldean interesa duenak, amaieran jarri dugun oinarriko bibliografiaz gain, hauek

Xabier Etxeberria, *Ignacio Ellacuría: testigantza eta mezua*, Cuadernos Bakeaz, 47. zk., 2001eko urria.  
**Jatorrizko titulu:** *Ignacio Ellacuría: testimonio y mensaje* • **Gaztelaniazko testuaren itzulpena:** Arantza Etxebarria Iturrate.  
© Xabier Etxeberria, 2001; © Bakeaz, 2001.

Lan hau Bakeaz erakundeak egin du, Bilboko Ignacio Ellacuría BHIko  
**Bakerako Hezkuntzako Ignacio Ellacuría Berrikuntza Proiektuaren** barruan.

*Lanotan adierazitako iritziak nahitaez ez datoz bat Bakeaz erakundeak dituenekin.*

**Cuadernos Bakeaz** argitalpen monografikoa eta bi hilez behingoa da eta zentroari lotutako edo zentroarekin lankidetzan aritzen diren jendeak egiten du. Defentsaren ekonomia, lankidetzako politikak, bakerako hezkuntza, geopolitika, gizarte mugimenduak, ekonomia eta ekologiarri lotutako gaiak jorratzen ditu; era berean, gai horietan interesa duten pertsona edo erakundeei ikerketa labor eta zorrotzak eskaintzen ahalegintzen da pentsamolde kritikoa oinarrituta eta arazo horiekiko konpromisotik abiatuta.

**Argitalpenaren zuzendaria:** Josu Ugarte • **Koordinazio teknikoa:** Blanca Pérez • **Aholkulariak:** Martín Alonso, Joaquín Arriola, Nicolau Barceló, Anna Bastida, Roberto Bermejo, Jesús Casquette, Xabier Etxeberria, Adolfo Fernández Marugán, Carlos Gómez Gil, Rafael Grasa, Xesús R. Jares, José Carlos Lechado, Arcadi Oliveres, Jesús M<sup>a</sup> Puente, Jorge Riechmann, Pedro Sáez, Antonio Santamaría, Angela da Silva, Ruth Stanley, Carlos Taibo, Fernando Urruticoechea • **Argitaratutako tituluak:** 1. Carlos Taibo, *Veinticinco preguntas sobre los conflictos yugoslavos* (argit. berrikusia); 2. Xabier Etxeberria, *Antirracismo*; 3. Roberto Bermejo, *Equilibrio ecológico, crecimiento y empleo*; 4. Xabier Etxeberria, *Sobre la tolerancia y lo intolerable*; 5. Xabier Etxeberria, *La ética ante la crisis ecológica*; 6. Hans Christoph Binswanger, *Protección del medio ambiente y crecimiento económico*; 7. Carlos Taibo, *El conflicto de Chechenia: una guía de urgencia*; 8. Xesús R. Jares, *Los sustratos teóricos de la educación para la paz*; 9. Juan José Celorio, *La educación para el desarrollo*; 10. Angela da Silva, *Educación antirracista e interculturalidad*; 11. Pedro Sáez, *La educación para la paz en el currículo de la reforma*; 12. Martín Alonso, *Bosnia, la agonía de una esperanza*; 13. Xabier Etxeberria, *Objeción de conciencia e insumisión*; 14. Jörg Huffschmid, *Las consecuencias económicas del desarme*; 15. Jordi Molas, *Industria, tecnología y comercio en la producción militar: el caso español*; 16. Antoni Segura i Mas, *Las dificultades del Plan de Paz para el Sáhara Occidental, 1988-1995*; 17. Jorge Riechmann, *Herramientas para una política ambiental pública*; 18. Joan Roig, *Guinea Ecuatorial: la dictadura enquistada*; 19. Joaquín Arriola, *Centroamérica, entre la desintegración y el ajuste*; 20. Xabier Etxeberria, *Ética de la desobediencia civil*; 21. Jörn Brömmelhörster, *El dividendo de la paz: ¿qué abarcaría este concepto?*; 22. Luis Alfonso Aranguren Gonzalo, *Educación en la reinención de la solidaridad*; 23. Helen Groome, *Agricultura y medio ambiente*; 24. Carlos Taibo, *Las repúblicas ex yugoslavas después de Dayton*; 25. Roberto Bermejo, *Globalización y sostenibilidad*; 26. Roberto Bermejo y Álvaro Nebreda, *Conceptos e instrumentos para la sostenibilidad local*; 27. Jordi Roca, *Fiscalidad ambiental y "reforma fiscal ecológica"*; 28. Xabier Etxeberria, "Lo humano irreductible" de los derechos humanos; 29. Xesús R. Jares, *Educación y derechos humanos*; 30. Carlos Gómez Gil, *Una lectura crítica de la cooperación española. Lo que nunca nos dicen*; 31. Xabier Etxeberria, *La educación ante la violencia en el País Vasco*; 32. Daniel J. Myers, *Activismo social a través de la red*; 33. Roberto Bermejo, *Realidades y tendencias del comercio justo*; 34. Carlos Taibo, *Diez preguntas sobre el conflicto de Kosova*; 35. Clara Murguialday, *Mujeres y cooperación: de la invisibilidad a la equidad de género*; 36. Fernán González, S.I., *Colombia, una nación fragmentada*; 37. Xabier Etxeberria, *La no violencia en el ámbito educativo*; 38. Antoni Segura i Mas, *El Sáhara en la dinámica política magrebí y las dificultades del Plan de Paz (1995-2000)*; 39. Dieter Rucht, *El impacto de los movimientos medioambientales en Occidente*; 40. Martín Alonso, *Universales del odio: resortes intelectuales del fanatismo y la barbarie*; 41. Tica Font (koor.), *La paz en movimiento: campañas y experiencias de movilización (I)*; 42. Tica Font (koor.), *La paz en movimiento: campañas y experiencias de movilización (II)*; 43. Julián Salas, *Hábitat y cooperación en Latinoamérica. Centroamérica antes y después del 'Mitch'*; 44. Roberto Bermejo, *Fundamentos de ecología industrial*; 45. Gema Celorio, *Nuevos retos para la sensibilización sobre el desarrollo*; 46. Carlos Gómez Gil, *La cooperación descentralizada en España: ¿motor de cambio o espacio de incertidumbre?*; 47. Xabier Etxeberria, *Ignacio Ellacuría: testimonio y mensaje*/Ignacio Ellacuría: testigantza eta mezua • **Diseinua:** Jesús M<sup>a</sup> Juaristi • **Maketazioa:** Mercedes Esteban Meriel • **Inprimatzailea:** Grafilur • **ISSN:** 1133-9101 • **Legezko gordailua:** BI-295-94.

**Urteko harpidetza** (6 zenbaki): 2.400 pta./14,42 euro • **Erakundeak eta laguntza-harpidetza:** 3.600 pta./21,64 euro • **Ordaintzeko modua:** bankuan helbideratuta (adierazi 20 digituak, entitateari, sukurtsalari, kontrolari eta kontu korronteari dagozkionak) edo Bilbao Bizkaia Kutxako 2095/0365/49/3830626218 kontu korrontera transferentzia eginda • **Ale solteak eskuratzea:** koaderno hauek eta Bakeaz erakundeko beste argitalpen batzuk jasotzean ordaintzeko eska daitezke (500 pta./3,00 euro bidaltze-gastuengatik) behean adierazitako helbidean. Ale bakoitzaren prezioa 400 pta./2,40 euro da.

**Bakeaz** Gobernuz kanpoko erakundea 1992an sortu zen eta ikerketak egiten ditu. Unibertsitateari eta pazifismoaren esparruari, giza eskubideei eta ingurumenari lotutako jendeak sortu zuen, eta gogoetarako eta gizabidezko ekintzarako irizpideak eman nahi ditu gai hauen inguruan: nazioarteko harremanen militarizazioa, segurtasunaren eta armen ekoizpen eta merkataritzaren politikak, ekonomiaren eta ekologiarren arteko lotura teorikoa, politika hidrológicoak eta ura kudeatzekoak, Tokiko Agenda 21eko prozesuak, lankidetzako politikak eta bakerako eta giza eskubideetarako hezkuntza. Lan horretarako, liburutegi berezitua du; ikerketak eta azterketak egiten ditu adituen sare handi baten laguntzaz; liburu eta buletin teorikoen bildumetan erakundeak egindako ikerketak edo nazioarteko erakundeek —esaterako, Worldwatch Institute, ICLEI eta UNESCO— egindakoak argitaratzen ditu; ikastaroak, mintegiak eta hitzaldi zikloak antolatzen ditu; erakundeak eta komunikabideak aholkatzen ditu; prentsan eta aldizkari teorikoetan artikuluak argitaratzen ditu; eta mintegietan eta kongresuetan parte hartzen du.

Bakeaz • Santa Maria, 1-1.a • 48005 Bilbao • Tel.: 94 4790070 • Faxe: 94 4790071 • Posta elektronikoa: [bakeaz@sarenet.es](mailto:bakeaz@sarenet.es)

